

Erabiltzaileen eskubide eta bete-beharrak

Eskubideak

1. Bere izaera, giza duintasuna eta intimitatea izatekoa, ezin izango delarik baztertua izan bere arrazagatik edo kondizio sozial edo sexualagatik, ezta arrazoi moral, ekonomiko, ideologiko, politiko edo sindikalengatik ere.
2. Bere prozesu eta egonaldiarekin lotutako informazio guztia konfidentziala izatekoa.
3. Ohartarazia izatea, berari ezarritako prozedura pronostikoak, diagnostikoak eta terapeutikoak, irakas-kuntza edo ikerketa proiektu baten arabera erabiliak izan daitezkeen, ezin izango dutelarik inolaz ere bere osasunarentzako kalte gehigarriak suposatu. Izatekotan, aurrez pazientearen idatzizko baimena beharko da eta medikuaren onarpena, baita ere ospitaleko Zuzendaritzaren onarpena ere.
4. Modu ulerterrazean, berari eta bere familiartekoei edo ahaideei, bere prozesuari buruzko etengabeko informazio osoa, ahozkoa nahiz idatzizkoa, jasotzekoa, diagnostiko, pronostikoa eta tratamendu aukerak barne.
5. Bere kasuan dagokion mediku arduradunak aurkezten dizkion aukeren artean erabakitzeaskatasuna,

edozein ebakuntza egiteko aurrez erabiltzailearen idatziko adostasuna beharrezkoa delarik, ondorengo kasuetan izan ezik:

- a. Ebaketa ez egiteak osasun publikoarentzako arriskua suposatzen duenean.
 - b. Erabakiak hartzeko gai ez denean, kasu honetan, eskubidea bere familiartekoei edo berari ahaidetutakoei dagokie.
 - c. Larrialdiak ez duenean luzapenik onartzen, lesio itzulezinak eragin daitezkeelako edo hiltzeko arriskua dagoelako.
6. Mediku bat egokitzekoa, zeinaren izena jakitera emango zaion, eta lan-talde asistentzialarekin bitartekari nagusia izango den. Hau ezean, lan-taldeko beste mediku batek hartuko du erantzukizun hau bere gain.
7. Tratamenduaren aurrean ezezkoa ematekoa, 5. puntuari aipatutako kasuetan ez ezik, horretarako, Legeak aipatutako baldintzetan borondatezko alta eskatu beharko delarik.
8. Bere prozesu guztia idatziz jasoa izatekoa. Ospitale Erakunde batean erabiltzailearen egonaldia amaitzean, pazienteak, senitartekoak edo berari ahaidetutako pertsonak bere Alta Txostena jasoko du.
9. Kexa eta iradokizun proposamen bideak aurrikusitako epearen barruan erabiltzekoa. Kasu batean

zein bestean, araudiak ezarritako epeen barruan jaso beharko du idatzizko erantzuna.

Betebeharrak

1. Bere gaitasunaren arabera, berari laguntzen dion lan-talde terapeutikoarekin kolaboratzea, pazientearen tratamendurako beharrezkoa den informazioa emanaz eta ezarritako jarraibide eta oharrei jaramon eginez.
2. Beste pazienteak eta beraien intimitatea errespetatzea.
3. Ospitaleko profesionalak errespetatzea.
4. Instalazioak zaintzea eta beraien eskura dauden baliabideak ondo erabiltzea.
5. Ospitaleko arautegia betetzea.
6. Tratamendua ez bada onartzen, Borondatezko Altsinatzea. Ageriko ezgaitasun edo/eta norberarentzako edo ingurukoentzako arriskurik balego, epai-learen esku-hartzera jo beharko da.